

LEZO / Irakurketa klubak antolatu ditu bigarrenaz liburutegiak

Lezoko udal liburutegiak irakurketa klubak egitasmoa antolatu du bigarren aldiz aurtan. Izena emateko epea ekainean zabaldu bazuten ere, interesdunek oraindik izena eman dezakete hilaren 28a arte. Irakurketa klubeko kideek ez dute arduratu beharko liburuak eskuratzeaz, liburutegiak banatuko dituelako saio bakoitza hasi baino hiru aste lehenago. Euskarazko irakurketa kluba Ane Mayozen dinamizatuko du eta gaztelerazkoa berriz, Javier Minak.

Joan den ikasturtean hamazazpi lagun aritu ziren guztira irakurketa klubean, hamar euskarazkoan eta zazpi gaztelerazkoan eta liburutegiko arduradunek jakinarazi dutenez, aurreko urteko kopurua gainditu dute jada.

Landuko dituzten liburuak

Urriaren 29an hasita, euskarazko irakurketa klubean Karmele Jaioren Amaren eskuak; Mikel Peruarenaren ez obeditu inori; Garazi Kamioeren Beste norbaiten zapatak; eta Bernardo Atxagaren Zazpi etxe Fantzian liburuen gainean ariko dira.

Gaztelerazkoan berriz, azaroaren 27an hasita Natalia Ginzburgen Lexico familiar; Philip Rothen Patrimonio. Una historia verdadera; Ian McEwanen Solar; eta Georges Simenonen La mirada indiscreta liburuen gainean ariko dira.

Ipuin kontaketa

Ipuin kontaketa saioak datorren hilabetearen hasiko direla zehaztu dute bestalde liburutegiko arduradunek. Horien gaineko informazioa jasotzeko liburutegiko webgunera jo dezakete interesdunek.